

Kontratatorako barne-jarraibideak **ELIKA**

1. berrikuspena
2016/09/14

AURKIBIDEA

- 1. HELBURUA**
- 2. APLIKAZIO-EREMUA**
- 3. DEFINIZIOAK ETA INTERPRETAZIOA**
- 4. TARTEAN EGONGO DIREN ARLO ETA PERTSONAK**
- 5. HIZKUNTZA-BALDINTZAK SARTZEA KONTRATUAK IZAPIDETZEAN ETA GAUZATZEAN**
- 6. KONTRATAZIORAKO BARNE-JARRAIBIDEEK ARAUTUTAKO KONTRATAZIOA: PRINTZIPIO OROKORRAK**
- 7. KONTRATAZIORAKO BARNE-JARRAIBIDEEK ARAUTUTAKO KONTRATUAK: IZAERA ETA EZARRI AHAL ZAIEN ERREGIMEN JURIDIKOA**
- 8. KONTRATAZIO ORGANOA**
- 9. ERAKUNDE LIZITATZAILEAREN AHALMENA ETA KAUDIMENA**
- 10. ESKA DAITEZKEEN BERMEAK**
- 11. KONTRATUAK PRESTATZEA**
- 12. ERAKUNDE KONTRATUGILEA HAUTATZEA ETA KONTRATUAK ESLEITZEA**
- 13. ARRAZIONALIZAZIO TEKNIKORAKO ARAUAK**
- 14.- JURISDIKZIO ESKUDUNA**

1. HELBURUA

Elika, Nekazaritzarako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa (“**ELIKA**”), sektore publikokoa da, bat etorritz Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.1.f) artikuluan azaldutakoarekin.

Kontrataziorako barne-jarraibide hauek (hemendik aurrera, “**KBJ**”) helburu dute hirugarrenekin egiten diren kontratu guztietan bete beharreko jarduera-metodologia ezartzea. Zehazki, Elikak hirugarren erakundeekin egiten dituen kontratazioei dagokienez, KBJ hauen xedea da erregulazio bateratuen menpe ez dauden kontratuak esleitzeko barne-prozedurak arautzea. Horrela, bermatu egiten da publizitatearen, konkurrentziaren, gardentasunaren, konfidentzialtasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen eraginkortasuna. Halaber, bermatu egiten da kontratua eskaintza ekonomiko onuragarrienari esleitzeko zaiola, SPKLren 191.b) artikulua xedatutakoa betez.

KBK horietan jasotako kontratuen esleipen-prozeduretan parte hartu nahi duten interesdun guztien eskura jarri behar dira, eta ELIKAREN kontratatzailearen profilean argitaratu.

2. APLIKAZIO-EREMUA

KBK nahitaez bete behar dira Elikak kostu bidez hirugarrenekin egiten dituen kontratu guztietan, haien izaera edozein dela, honako hauen kasuan salbu:

- i. SPKLren 4. artikuluan aipatzen diren negozioak eta harreman juridikoak (“Negozioak eta kontratuak salbu”).
- ii. Erregulazio bateratuen menpeko kontratuak, hau da, obren, horniduren eta zerbitzuen kontratuak, baldin eta haien balio zenbatetsia SPKLTBn ezarritako zenbatekoen berbera edo handiagoa bada. Kontratuok esleitzeko, SPKLTBren 190. artikuluan xedatzen dena beteko da.
- iii. Sektoreko araudi aplikagarriak (hala nola salbuetsitako sektoreetako legediak) erregulatutako edo berariaz salbuetsitako negozioak. Araudi horrek xedatzen duenari jarraikiz esleitzeko dira.

3. DEFINIZIOAK ETA INTERPRETAZIOA

3.0.- Erregulazio bateratuaren menpe ez dauden kontratuak izango dira SPKLTBko Atariko Izenburuko II. kapitulu 2. atalean hala definitzen direnak. Zehazki, horrelakotzat joko dira, besteak beste, obra-kontratuak, baldin eta haien balio zenbatetsia, legeari jarraikiz

kalkulatutakoa, 5.225.000 eurotik beherakoa bada (BEZik gabe). Halaber, beste horrenbeste egingo da hornikuntza- eta zerbitzu-kontratuekin, haien balio zenbatetsia, legeari jarraikiz kalkulatutakoa, 209.000 eurotik beherakoa bada (BEZik gabe).

3.1.- Obra-kontratuak dira SPKLTBren 6. artikuluan eta bat datozen gainerako xedapenetan hala definitzen direnak. Oro har, obra-kontratuak dira ondasun higiezin bat eraikitzeko lanei dagozkien kontratuak.

3.2.- SPKLTBren 9. artikulua xedatzen du hornidura-kontratuak direla produktu edo ondasun higigarriak finantza-errentamenduan hartzeko, errentan hartzeko (erosteko aukera izanik ala izan gabe) edo eskuratzeko xedea dutenak.

Zehazki, hornikuntza-kontratuak dira Elikaren berezko jarduerak egiteko behar diren materialak, ekipoa edo instalazioak helburutzat dituztenak.

3.3.- SPKLTBren 10. artikulua xedatzen duenaren arabera, zerbitzuen kontratuak dira, hain zuzen ere, jarduera bat betetzeko zerbitzu bat edo obraz edo horniduraz besteko emaitza lortzeko zerbitzu bat ematea helburu dutenak.

Kontratu horien artean daude ikerketari, garapenari, bideragarritasun tekniko edo ekonomikoari, merkatuari, laguntza teknikoari eta aholkularitzari buruzko azterketak egitea xede dutenak (ikuskaritzak, aurre-proiektuak, argitalpenetarako oinarritzko dokumentuak, argitalpenen edizioa, komunikazio-, hedapen- eta publizitate-kanpainak eta prestakuntza-ikastaroak barne). Multzo horretan sartzekoa da, halaber, Elikako hainbat arlotako lana garatzeko behar den beste edozein jarduera.

3.4.- Kontratuen balio zenbatetsia kalkulatzeko, aintzat hartuko dira SPKLTBren 88. artikuluan aurreikusitako arauak, eta ez du jasoko Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

3.5.- KBJ hauetako 12. atalean aipatzen den zenbatekoa (SPKLTBren II. eranskineko 17.etik 27.era arteko kategorietan aintzatetsitako zerbitzu-kontratuei dagokiena) eta Elikak egindako kontratuak erregulazio bateratuaren menpe jartzen dituzten zenbatekoak eguneratutzat joko dira, Europako Batzordeak ezarritakoekin bat (SPKLTBren Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian azaltzen den bezala).

4. TARTEAN EGONGO DIREN ARLO ETA PERTSONAK

Elikako langile guztiak.

5. HIZKUNTZA-BALDINTZAK SARTZEA KONTRATUAK IZAPIDETZEAN ETA GAUZATZEAN

Aintzat hartuta Elikak izaera juridikoa duela eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-administrazioaren barruan dagoela, Elikak egindako kontratazio-espedituetan gogoan izan beharko da Eusko Jaurlaritzak 2006ko otsailaren 28ko saioan emandako ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorretan, organismo autonomoetan eta eskubide pribatuko erakunde publikoetan gauzatzen diren administrazio-kontratueta hizkuntza-baldintzak ezartzeari buruzkoa.

6. KBJek ARAUTUTAKO KONTRATAZIOA: PRINTZIO OROKORRAK

Elikak beste erakunde batzuekin egiten dituen kostu bidezko kontratuak erregulazio bateratuaren menpekotzat zein ez-menpekotzat jo daitezke. Erregulazio bateratuaren menpe ez dauden kontratuak SPKLTBren 1. artikuluan jasotako printzipioei jarraikiz arautuko dira. Gainera, kontratu horiek, edozein kasutan, publizitatearen, konkurrentziaren, gardentasunaren, konfidentzialtasunaren, berdintasunaren eta bazterketarik ezaren printzipioen arabera esleituko dira, SPKLTBren 191. artikuluekin bat.

Aurreko paragrafoan adierazitako printzipioak betetzen direla bermatzeko, Elikak KBJen arabera izapidetzen dituen eta erregulazio bateratuaren menpe ez dauden kontratuen kontratazio-prozeduretan, kontratazio-organismoek printzipio horiek betetzeko lan egin beharko dute edonola ere.

Printzipio horiek bete direla esateko, KBJ hauen ondoko ataletan zehaztutako arauak zainduko dira. Bada, horiek ezartzeko eta interpretatzeko, honako jardunbide-agindu hauek hartuko dira aintzat:

- a) Publizitate-printzipioa betetzat joko da lizitatzailerik potentzialaren alde, hedabide eta dibulgazio-bide egokiak eta irisgarriak erabiltzen direnean, horiek Elikaren kontratazioari buruzko informazioa ematen dutenean eta merkatua lehiara zabaltzea ahalbidetzen dutenean.
- b) Gardentasun-printzipioa betetzat joko da, dagokion kontratua esleitu aurretik informazio egokia hedatzen edo dibulgatzen bada, eta informazio horrek ahalbidetzen badu lizitatzailerik potentzial guztiak lizitazioan parte hartzeko interesa adierazteko moduan egotea. Halaber, printzipio horrek dakar parte-hartzaile guztiak ezagutu ahal izatea esleitu nahi den kontratuari ezar dakizkiokeen arauak, baita ziur jakitea arau horiek enpresa guztietan modu berean aplikatzen direla ere.

- c) Beharrezko neurriak hartuko dira, KBJ hauetan aurreikusitakoarekin bat, lizitatuaren potentzialen sarbidea eta partaidetza errazteko, kontratua eskaintza ekonomiko onuragarriari esleitze aldera.
- d) Konfidentzialtasun-printzipioa gordetzeko, Elikak hitzematzen du ez duela zabalduko enpresariak emandako informazioa, informazio hori konfidentzialtzat jo bada. Izaera horrek, zehazki, sekretu tekniko edo komertzialei ere egiten die, baita eskaintzen alderdi konfidentzialei ere. Era berean, kontratistek ere isilean gorde beharko dute kontratua betetzen ari direla eskuratzen duten informazioa, baldin eta kontratuaren baldintza-agirietan isilean gorde beharrezkotzat jo bazen informazio hori, edo, informazioaren izaerarengatik, isilean gorde beharrezkotzat hartu beharrekoa bada.
- e) Berdintasunaren eta bazterketarik ezaren printzipioa betetzeko, beharrezko neurriak hartuko dira prozeduren inpartzialtasuna eta berdintasuna bermatze aldera. Neurri horien artean, gutxienez, honako hauek hartuko dira:
 - i. Kontratuen helburua bazterketarik egin gabe deskribatuko da beti, fabrikazio edo jatorri jakin bat aipatu gabe, produktu zehatzak edo marka, jatorri zein produktu jakin bat aipatu gabe, salbu eta era horretako erreferentzia behar den bezala justifikatzen bada eta “edo baliokidea” aipamena jartzen bada.
 - ii. Ez da inolako baldintzarik ezarriko, baldin eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako lizitatuak potentzialak zuzen edo zeharka baztertzeari eragiten badu.
 - iii. Hautagaiei honako hauek aurkezteko eskatuko zaie: tituluak, ziurtagiriak edo beste edozein dokumentazio egiaztzatzaile. Beste estatu kide batzuetatik datozen dokumentuak elkarri tituluak, ziurtagiriak eta bestelako diplomak aitortzeari buruzko printzipioari jarraikiz onartu beharko dira.
 - iv. Interesa agertzeko edo eskaintza bat aurkezteko emandako epeak egokiak izango dira, beste estatu kide batzuetako enpresei ebaluazio egokia egiteko eta eskaintza bat aurkezteko aukera emateko modukoak.
 - v. Esleipen-prozeduran hornitzaile edo banatzaile bat baino gehiago lehiatzen diren kontratuetan, Elikak bermatuko du horiek guztiek informazio bera baldintza berberetan jaso dutela.

7. KONTRATAZIORAKO BARNE-JARRAIBIDEEK ARAUTUTAKO KONTRATUAK: IZAERA ETA EZARRI AHAL ZAIEN ERREGIMEN JURIDIKOA

Elikak egindako kontratuak kontratu pribatuak dira beti, SPKLTBren 20.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Erregulazio bateratuaren menpe ez dauden kontratuak, KBJ hauetan araututakoak, kasu orotan bete beharko dituzte erregulazio bateratuaren menpe ez dauden kontratuak egiten dituzten sektore publikoko erakunde eta elkarteek bete beharreko xedapen guztiak, SPKLTBn xedatutakoarekin bat. Zehazki, horrek esan nahi du SPKLTBren I. Liburuan (*Sektore publikoko kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak*) jasotako arauak bete behar direla. Elikari ezarri behar zaizkio, sektore publikoko botere esleitzaila delako eta ezin delako herri-administraziozat izendatu.

Era berean, Liburu horretako V. Tituluan ezarritakoa bete behar da kontratuak aldatu behar badira.

Kontratuen ondorioei, betetzeari eta amaitzeari dagokienez, zuzenbide pribatua ezarriko da.

8. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratatzeko gaitasuna ELIKAREN estatutuetan xedaturikoak eta aplikatu daitezkeen zuzenbide pribatuko legeek arautzen dute.

Kontratazio Organoa Patronatua da beti, eta, harez gain, esparru pribatuko ahalmenen arabera kontratatzeko eskumenak dituzten pertsonak ere izan daitezke kontratazio-organoa.

Kontratazio Organoak, kasuan-kasuan, egokitzat jotzen dituen pertsonari edo pertsonen berariaz ahalmena eman ahal izango die kontratuekin lotutako jarduketak jakin batzuk egin ditzaten.

9. ERAKUNDE LIZITATZAILEAREN AHALMENA ETA KAUDIMENA

9.1. Kontratatzeko gaitasuna

KBJ hauetan araututako kontratuak SPKLTBren 54. artikulua eta sektore publikoko erakunde guztiei ezartzen zaizkien eta bat egiten duten gainerako xedapenak betetzen dituzten pertsonekin egin ahalko dira. Zehazki, ezin izango da kontraturik egin SPKLTBren 60.1. artikuluan definitutako kontratazio-bateraezintasunak dituzten pertsonekin. Halaber, ezin da kontraturik egin enprekin, baldin eta uste bada enpresetako arduradunak edo bestelako baldintzak direla-eta kontratazio-bateraezintasunak zituzten enpresetatik eratorritako, itxuraldatutako, bat egindako edo ordezkaturiko enpresak direla.

Kasu bakoitzean eskatuko diren gutxieneko ahalmen- eta kaudimen-betekizunek kontratuaren helburuari loturik egon behar dute, eta horrekiko proportzioa gorde behar da.

9.2. Kontratatzekeo gaitasunaren akreditazioa

Sektore publikoko erakunde guztiei ezarri ahal zaizkien SPKLTBren xedapenetan eragin gabe, kontratatzekeo kaudimen ekonomiko-finantzarioaren eta tekniko edo profesionalaren akreditazioa kasu bakoitzean kontratazio-organoak xedatzen duenaren arabera egingo da. Xedapen hori kontratuaren baldintzak eta ezaugarriak aintzat hartuta egingo da, eta SPKLTBren 75. eta 79. artikuluen artean aurreikusitakoa ezar daiteke, kontratazio-organoak bidezkotzat jotzen badu.

Era berean, SPKLTBren 65.5. artikuluari jarraikiz, kontratuaren baldintzak eta ezaugarriak aintzat hartuta, kasu bakoitzean eskatu ahal izango da enpresariak bere kaudimena dagokion sailkapenaren arabera egiaztatzekeo.

Enpresariak bete behar dituen gutxieneko kaudimen-baldintzak eta kaudimena egiaztatzekeo eskatzen den dokumentazioa lizitazio-iragarkian adieraziko dira, eta kontratuaren pleguan ere zehaztuko dira, betiere KBJen arabera eskatu behar bada.

10. ESKA DAITEZKEEN BERMEAK

Kontratuaren baldintzak eta ezaugarriak aintzat hartuta, kontratazio-organoak eskatu ahal izango du lizitatzailleek edo hautagaiek bermea aurkeztekeo, esleipena egiten den artean euren eskaintzak mantenduko dituztela bermatzeko. Dena den, espedientean behar bezala arrazoitu beharko da zergatik egin den berme-eskaera. Gauza bera egin beharko da esleipendunaren bermearekin, prestazioa behar den bezala gauzatzen dela ziurtatzeko.

Berme horien zenbatekoa kasuan kasuko kontratuaren egoeraren eta ezaugarrien arabera zehaztuta dago. Dena dela, bermeeke ezingo dituzte gainditu SPLKTBren 95 eta 103. artikuluetan berme mota bakoitzerako ezarritako zenbatekoak.

Eskatzen diren bermeak SPKLTBren 96. artikuluan aurreikusitako moduetan aurkeztu ahal izango dira.

11. KONTRATUAK PRESTATZEA

KBJek aipatzen dituzten kontratuak prestatzekeo, plegu bat edo betekizun teknikoak jasotzen dituen dokumentu baliokidea egin beharko da, kontratuaren zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa bada, bat etorritz SPKLTBren 137. artikulurekin eta bat datozen gainerako xedapenekin.

Ezartzekoa da, era berean, SPKLTBren 120. artikulua xedatutakoa. Horrez gain, pleguan KBJei dagozkien gainerako ataletan adierazten den informazioa jasoko da, bidezkoa bada.

Hau da, erregulazio bateratuaren menpe ez dauden kontratuak prestatzean, SPKLTBren 137.2. artikulua edukia eta bat datozen KBjen atalak aintzat hartuta, pleguetan nahitaez jasoko dira honako aipamen hauek, kontratazio-organoak bidezkotzat jotzen dituen gainerako gaietan eragin gabe:

- a) Kontratuaren oinarritzko ezaugarriak (xedearen definizioa, ezaugarri nagusiak, balioaren prezio zenbatetsia, iraupena, etab.).
- b) Aldaerak onartzeko erregimena.
- c) Eskaintzak jasotzeko modalitateak.
- d) Lizitazioan parte hartu nahi duten enpresari eta interesdunei eska dakizkiekeen gutxieneko ahalmen- eta kaudimen-betekizunak.
- e) Kontratazio-organoak bidezkotzat jotzen duenean, proposamenak aurkeztera gonbidatuko diren hautagaiak hautatzeko kaudimen-irizpide objektiboak eta eskaintza aurkeztera gonbidatuko diren hautagaien gehieneko kopurua (ez dira hiru baino gutxiago izango).
- f) Kontratazio-organoak eskaintza ekonomikoki bideragarrienari esleitzeko ebaluatuko diren irizpide tekniko eta ekonomikoak.
- g) Balorazio-organoa eratzeko beharra, aurkeztutako informazioa kalifikatzeko, eskaintzak baloratzeko eta esleipen-proposamena egiteko, kontratazio-organoak beharrezkotzat jotzen duenean.
- h) Bidezkoa bada, hautatutako lizitazio-erakundeek edo lizitatzailleak eratu beharreko bermeak.
- i) SPKLTBren 120. artikulua araberako lan-kontratuaren subrogazio-baldintzei buruz eman beharreko informazioa.
- j) Konfidentzialtasun-betebeharrari dagokion hedadura objektiboa eta aldi baterakoa, bidezkoa bada, enpresariari ezarriko zaiona.
- k) Lizitatzailen aldetik informazio gehigarria lortzeko ezar daitezkeen epeak eta eskaintzak aurkezteko epeak. Bestela, hala badagokio, partaidetza-eskaerak eta aurkeztutako dokumentazioan zuzenketak egiteko eskaerak, kontratazio-organoak bidezkotzat jotzen badu.
- l) Kontratazio-organoak indargabetzeko kausak.

12. ERAKUNDE KONTRATUGILEA HAUTATZEA ETA KONTRATUAK ESLEITZEA

12.1. Kontratuaren mailak

Kopuruaren arabera, KBJ hauen menpe dauden kontratuak hiru mailatan sailkatzen dira (hemendik aurrera, “**Maila**” edo “**Mailak**”), eta horietako bakoitza zenbait kontratazio-prozeduraren menpe egongo da.

Hauek dira maila horiek:

(i) 1. maila. Kontratuaren balio zenbatetsia honako kopuru hauek baino txikiagoa denean:

- 17.999,99 euro (BEZik gabe), hornidura-kontratua bada
- 17.999,99 euro (BEZik gabe), zerbitzu-kontratua bada
- 49.999,99 euro (BEZik gabe), obra-kontratua bada

(ii) 2. maila. Kontratuaren balio zenbatetsia honako hauen artekoa bada:

- 18.000 euro eta 60.000 euro (biak barne, BEZik gabe) hornidura-kontratua bada
- 18.000 euro eta 60.000 euro (biak barne, BEZik gabe) zerbitzu-kontratua bada
- 50.000 euro eta 200.000 euro (biak barne, BEZik gabe) obra-kontratua bada

(iii) 3. maila. Kontratuen balio zenbatetsia 2. mailakoena baino handiagoa ez denean eta erregulazio bateratuaren menpe ez daudenean, SPKLTBren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hortaz, maila honetan honako balio zenbatetsi hau duten kontratuak sartuko dira:

- 60.000 euro baino gehiago eta 209.000 euro baino gutxiagoko hornidura-kontratuak (kasu bietan, BEZik gabe)
- 60.000 euro baino gehiago eta 209.000 euro baino gutxiagoko zerbitzu-kontratuak (kasu bietan, BEZik gabe), SPKLTBren II. Eranskinen 1. eta 16. kategorien artean sailkatutakoak eta SPKLTBren II. Eranskin horretako 17. eta 27. kategorien artean sailkatutakoak, eta 13.2 artikuluko kontratuak, haien zenbatekoa edozein dela ere.
- 200.000 euro baino gehiago eta 5.225.000 euro baino gutxiagoko obra-kontratuak (kasu bietan, BEZik gabe)

12.2. Publizitatea

50.000 euro (BEZik gabe) baino gehiagoko 2. mailako kontratuetan, lizitazioari buruzko informazioa jarri behar da, gutxienez, Elikaren kontratatzailearen profilean. 3. mailako kontratuetan, lizitazioaren inguruko informazioa jarri behar da, gutxienez, Elikaren kontratatzailearen profilean eta Arabako Aldizkari Ofizialean, eta aukera zehatza adierazi behar da ekonomia- eta administrazio-klausulen pleguan. Nolanahi ere den, hedatzeko beste bitarteko batzuk erabili ahal izango dira, beharrezkotzat jotz gero, kontratuaren baldintzak eta ezaugarriak aintzat hartuta. Ez da mugarik egongo aldizkari ofizialetara, tokiko argitalpenetara edo Europar Batasuneko Eguneroko Ofizialera jotzeko. Era berean, beharrezkotzat jotzen bada, alde aurreko iragarkiak zabaldu ahal izango dira ekitaldi bakoitzean edo zenbait urtetako epean esleitu nahi diren kontratuetarako.

Lizitazio-iragarkiak informazio hau jasoko du:

- a) Kontratuaren xehetasun nagusien azalpen laburra.
- b) Kontratua esleitzeko prozedura, honako hauek adierazita: eskaintzak aurkezteko epea (prozedura irekian) edo prozedura negoziatuetan edo mugatuetan parte hartzeko eskariak (prozedura negoziatuetan eta mugatuetan), eta enpresekin negoziatuko diren alderdi tekniko eta ekonomikoak (prozedura negoziatuan).
- c) Kontratazio-organoak egokitzat jotzen badu, proposamenak aurkeztuko dituzten hautagaien kaudimena zein den erabakitzeko irizpide objektiboak jasoko dira, eta, kasu horretan, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea adieraziko da.
- d) Elikarekin harremanetan jartzeko gonbidapena, informazio gehigarria lortze aldera.

Edonola ere, kontratuaren baldintzek eta ezaugarriek hori gomendatzen badute, iragarkiaren edukia handitu daiteke, edo informazio gehigarria erants daiteke kontratatzailearen profilean.

Horretaz gain, 2. eta 3. mailako kontratuak direnean, esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

Azkenik, 100.000 euro (BEZik gabe) baino gehiagoko 2. eta 3. mailako obra-kontratuetan, kontratuaren formalizazioa lizitazio-iragarkia jarri den hedabide berberetan argitaratuko da, hau da, gutxienez ELIKAREN kontratatzailearen profilean eta Arabako Aldizkari Ofizialean.

12.3. Kontratazio-prozedurak

Aurreko mailetako kontratuei ezar dakizkieken kontratazio-prozedurak ondoren zerrendatzen dira.

Maila horietako bakoitzarentzat aurreikusitakoan eragin gabe, kontratazio-organoak, kontratuaren baldintza eta ezaugarrien arabera, beheko maila batean goragoko maila bateko arauak ezartzea erabaki dezake.

(i) 1. mailako kontratuak: esleipen zuzena

1. mailako kontratuak zuzenean esleituko dira.

Kontratazioa gutun-eskabidearen bidez egingo da (faxez edo posta elektronikoz bidal daiteke), Elikako formatu ofizialaren arabera. Bestela, bidezko kontratua sinatuko da, beharrezkotzat jotzen denean. Arduraduna arduratuko da izapidetzea kudeatzeaz eta eskatutako materiala edo zerbitzua jaso eta gainbegiratzeaz.

1. mailako kontratu horiek ezingo dute urtebete baino gehiagoko iraupena eduki, eta ezingo dira luzatu.

(ii) 2. mailako kontratuak: Eskaintzak eskatzeko prozedura

2. mailako kontratuak arduradunak esleituko ditu, eskaintzen eskaera-prozeduraren bidez, honako arau hauei jarraikiz:

1. Betiere posible bada, Elikak eskaintzak eskatuko dizkie, gutxienez, kontratuan adierazitakoa gauzatzeko ahalmena duten hiru enpresari. Gutun, posta elektronikoa edo fax bidez egingo du, betekizun teknikoaren plegua edo horren dokumentu baliokidea erantsita.

Edonola ere, eskaintza enpresa bakar bati eskatu ahal izango zaio, arrazoi tekniko edo artistikoen ondorioz edo eskusibitate-eskubideak babesteari lotutako arrazoiak direla eta, kontratua enpresari jakin bati bakarrik esleitu ahal zaionean.

2. Elikak kontratuko edozein alderdi negoziatu ahal izango du lizitatzailerekin, betekizun teknikoari buruzko pleguan edo horren dokumentu baliokidean adierazten diren alderdiak negoziazioan baztertzen direnean salbu. Bestalde, negoziazioa egiten den artean lizitatzailerak tratua bera jaso behar dute, eta informazioa ez da nolana emango.

3. Kontratazioaren arduradunak eskaintzen taula konparatiboa egingo du, eta kontratuaren esleipena eskaintza onuragarrienari esleitzea proposatuko du. Kontratuaren perfektzioa gutun-eskabidearen bidez egingo da (faxez edo posta elektronikoz igorri ahal izango da). Kontratazio Organoak sinatu beharko du, Elikako eskabideen formatu ofizialarekin edo kontratua pleguan sartu den bezala sinatuta. Gutun-eskabidean berariaz aipatuko dira kontratistarentzat balio loteslea duten dokumentuak.

Kasu horietan, dagokion plegua egin ez denean (50.000 eurotik beherako zenbatekoetan, BEZik gabe), izenpetuko den kontratuak jarraibide hauen 12.5 atalean adierazitako aipamenak bildu beharko ditu nolana ere.

4. Elikak jaso egingo ditu egin diren gonbidapenak, jasotako eskaintzak eta horiek onesteko edo baztertzeko arrazoiak.

5. Parte-hartzaile guztiei emango zaie esleipenaren berri, eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Kontratuaren formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta, era berean, Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira 100.000 euroko edo gehiagoko (BEZik gabe) obra-kontratuak.

(iii) 3. mailako kontratuak: prozedura irekiak, mugatuak, negoziatuak edo lehia-elkarrizketa

Kontratazio-organoak esleipen-prozedura adierazi beharko du pleguan, kontratuaren ezaugarriei jarraikiz, ondoko paragrafoetan aurreikusitako arauekin bat.

Maila honetako esleipenak egiteko prozedura arrunta prozedura irekia izango da.

Dena dela, prozedura negoziatua edo mugatua erabiltzea erabaki ahal izango da, horiek ezarri ahal izateko SPKLTBk aipatzen dituen balizko egoeraren bat badago.

SPKLTBren 180. artikuluan aipatutako baldintzak betetzen badira, lehia-elkarrizketa aplikatzea erabaki daiteke, eta SPKLTBren 179-183. artikuluek xedatutakoaren arabera egingo da.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta gutun itxietan aurkeztuko dira, ekonomia- eta administrazio-klausulen pleguan ezartzen den moduan.

Hala kontratua esleitzeko irizpideak nola haien ponderazioa Kontratazio Organoak erabakiko ditu, eta bai iragarkian bai ekonomia- eta administrazio-klausulen pleguan adieraziko dira.

Ekonomia- eta administrazio-klausulen pleguan, aurkeztutako eskaeren ebaluazio-txosten objektiboa egiteaz arduratuko den batzorde baten osaera eta ahalmenak jaso ahalko dira. Batzorde horrek, halaber, Kontratazio Organoari helaraziko dio aurkeztutako proposamenen zerrenda duen proposamena (neurritz kanpokotzat edo anormaltzat jo ez diren proposamenena), beheranzko hurrenkeran sailkatua, bat eginez ekonomia- eta administrazio-klausulen pleguan zehazten diren balorazio-irizpideekin; bestalde, ekonomikoki onuragarriena den eskaintza zein den ere adieraziko dio batzordeak Kontratazio Organoari. Batzorderik ez badago, erakundeko teknikariek helaraziko diote proposamena.

Kontratazio Organoak, arrazoitutako ebazpenaren bidez, ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleituko dio kontratua, bat eginez ekonomia- eta administrazio-klausulen pleguan zehaztutako balorazio-irizpideekin, eta aintzat hartuta Ebaluazio Batzordeak edo, bestela, teknikariek egiten duen proposamena. Kontratazio Organoak ez badu egindako proposamenaren arabera esleitzen kontratua, bere erabakia arrazoitu beharko du.

Esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizazioa, gutxienez, kontratatzailearen profilean eta Arabako Aldizkari Ofizialean (edo pleguan zehazten den horretan) argitaratuko da, aintzat harturik, kontratu bakoitzaren ezaugarrien eta egoeraren arabera, prozedurari zer-nolako hedapena eman nahi zaion lurraldean.

12.4. Erakunde kontratatzailea hautatzea

Kontratuen esleipena kontratazio-prozeduran parte hartuko dutenei jakinaraziko zaie, eta Elikaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

12.5. Kontratuak formalizatzea

Dagokien pleguan jada jasota ez badaude, Elikak egiten dituen KBJen menpeko kontratuak nahitaez jaso behar dituzte honako aipamen hauek, SPKLTBren 26. artikulurekin bat:

- a) Alderdien identifikazioa.
- b) Sinatzaileek kontratua sinatzeko duten ahalmenaren akreditazioa.
- c) Kontratuaren xedearen definizioa.
- d) Kontratuari ezar dakioken legeriaren erreferentzia.
- e) Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda. Kontratuan hala adierazten bada, zerrenda hori hierarkizatu egin daiteke; zehazki, alderdiek adostutako lehentasun-hurrenkerari jarraikiz ordenatuko dira. Kasu horretan, begi-bistako akatsa egiten ez bada, adostutako ordena erabiliko da lehentasuna ezartzeko, zenbait dokumenturen arteko kontraesanak badaude.
- f) Prezio zehatza edo hori kalkulatzeko modua.
- g) Kontratuaren iraupena edo kontratua hasteko eta amaitzeko emandako datak, baita luzapenari edo luzapenei dagozkienak ere, aurreikusi diren kasuetan.
- h) Diru-laguntzak jasotzeko, emateko edo onartzeko baldintzak.
- i) Ordaintzeko baldintzak.
- j) Kontratua indargabetu beharreko kasuak.
- k) Aurrekontu-kreditua edo kontabilitate-programa edo errubrika, bidezkoa bada, prezioa ordaintzeko erabiliko dena.
- l) Konfidentzialtasun-betebeharrari dagokion hedadura objektiboa eta aldi baterakoa, bidezkoa bada, kontratistari ezarriko zaiona.

Esleipena gutun-eskabidearen bidez egiten denean eta kontratua formalizatzea beharrezkoa ez denean, aldez aurretik egindako aipamenak dokumentu horretan jaso beharko dira, pleguetan jaso ez badira. Kasu horietan, kontratuaren perfekzioa gutun-eskabide hori igorrita egingo da. Kontratua, gehienez ere, hamabost egun balioduneko epean formalizatuko da, lizitatzailleak eta esleipendunak esleipen-jakinarazpena jasotzen dutenetik aurrera zenbatzen hasita. Elikaren kontratu-baimena, kasu horietan, kontratua formalizatuta adieraziko da. Kontratua formalizatzeak kontratua perfektionatzea dakar.

13. ARRAZIONALIZAZIO TEKNIKORAKO ARAUAK

Kontratuen esleipena arrazionalizatzeko eta ordenatzeko, Elikak enkante elektronikoak egin ditzake, esparruko akordioak amai ditzake, sistema dinamikoak egitura ditzake eta zerbitzuetako obrak, zerbitzuak eta hornikuntzak zein beste elkarte edo erakunde batzuen kontratazioa zentraliza dezake, SPKLTBren 148. eta 194-207 bitarteko artikuluei jarraikiz. Kasu bakoitzean KBJ hauetatik sortutako egokitzapenak ezarriko dira.

14. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio-ordena zibilak eskumena izango du erakundeak egiten dituen eta erregulazio bateratuaren menpe ez dauden kontratuak prestatzean eta esleitzean eragina duten auzien berri izateko, bai eta kontratuaren ondorioz, kontratuak betetzean edo kontratuak baliogabetzean sortzen diren auzien berri izateko ere (SPKLTBren 21. artikulua).

Nolanahi ere den, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak eskumena izango du SPKLTBren II. Eranskineko 17.etik 27.era arteko kategorietako zerbitzu-kontratuak (290.000 euroko edo gehiagoko balio zenbatetsia dutenak, BEZik gabe) prestatzean eta esleitzean sortzen diren auzien berri izateko. Horrez gain, nahi izanez gero, kontratazioaren arloko errekurtsio berezia jarri ahalko du administrazioarekiko auzia baino lehen.